



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/03/13

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek Arartekoaren agerraldia eskatu dabe, gizarte zerbitzuen inguruan egin dauen txostenaren barri emon daian**

Batzar Nagusietako talde guztiek Manuel Lezertua Arartekoa Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera etorri daitela eskatzea erabagi dabe gaur Gizarte Ekintzako batzordean. Podemos Bizkaia taldearen eskariak Bizkaiko Batzarretako aho bateko onspena jaso dau. Lezertuak erabagi beharko dau orain hurrengo batzordera etorriko dan, “Euskadiko Autonomia Erkidegoko udal gizarte zerbitzuen egoera. Egungo egoera eta hobekuntzarako proposamenak” izeneko txostena zehazteko Bizkairi jagokonez.

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira Arartekoaren presentzia “positiboa” izango dala esatean, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan gizarte zerbitzu horreen errealitatea ezagutu ahal izateko. Gauza bera egin eban Eusko Legebiltzarreko agerraldi batean, joan dan martiaren 8an. Eskarian adierazoten dan moduan, agerraldia gertatu ezker, Arartekoaren esku hartzea Bizkaiko udal gizarte zerbitzuetara mugatu beharko da.

Euzko Abertzaleak taldeak, Arartekoaren agerraldiak zerbitzu horreen inguruko “gogoeta barria” ekartea gura dau. Jon Sánchez jeltzaleak azaldu dauenez, “ez dauka ezelango arazorik” Arartekoa Batzar Nagusietara etorteagaz, baina Arartekoari jagokon “parlamentua” Eusko Legebiltzarra da, eta Legebiltzar horretan dagozan dagozan talde politikoak Bizkaiko Batzarretan dagozan “berberak” dira. Adierazo dauenez, bere taldeak bilera horretan ikusten danaren inguruko “gogoetea” zabalduko dau, kontuan izan behar dalako batzorde horreek “kostua” daukiela foru erakundearentzat.

### **UDAL EGOITZEN INGURUKO “ADOSTASUNA”**

Beste alde batetik, Batzar Nagusietan gaur egin dan batzordean, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak adierazo dau “lehenengo hiruhileko honetan” Aldundiak “adostasuna” lortu gura dauala Bizkaian pertsona nagusientzako dagozan udal titulartasuneko “15 egoitzak” kudeatzen dituen Udalakaz, bere sailak amaitu dauelako “daborduko” II. eta III. graduako menpekodunen balorazinoa. Arautegiak ezarten dauen moduan, Aldundiak bere gain hartuko dau pertsona horreen “guztien” arretea, eta urte honetatik aurrera arretako egoitzea hautatzeko aukerea izango dabe, gizarte zerbitzuen mapa barria hedatzen dan bitartean gerta daitekezan “trantsizinozko egoerak murrizteko” helburuz.

Oposizinozko taldeek –EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta PPK– kritikau egin dabe balorazinoa joan dan hilean amaitu izana, “lehenago” amaituta egon behar zalako. Sánchez Roblesek esan dauenez, udalak eurak izan ziran, Eudelen bitartez, “denpora gehiago” eskatu ebenak egoerea aztertzeke, udalentsat “erronka garrantzitsua” dalako eta Aldundiak “udalen autonomia errespetau gura dau”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## RANZARI TAILERRAK

Aurrekoagaz gertau dan moduan, Bizkaiko Batzar Nagusietako Podemos Bizkaia taldeak eskatu dauen beste agerraldi batean, Sánchez Roblesek, talde horrek Ranzari Tailerren egungo egoerearen inguruan egin dituan itaunak erantzun ditu. Talde moreak Aldundiak egiten dauen ekarpenaren eta markautako helburuen betete mailaren inguruko interesa erakutsi dau.

Foru diputatuak adierazo dauenez, 2017ko Aurrekontuetan dagon kontsignazino izenduna “562.000 eurokoa” da, Santurtziko eta Portugaleteko udalen esku dagon Mancomunidad municipal Pro minusválidos psíquicos talleres Ranzari izenekoagaz sinatu dan hitzarmenean oinarrituta. Eragiketen ondoriozko diru-sarreraren “%11ra” ailegetan ez dan kopuru horrek, zentro okupazionalako “60 plazei” eta “errendimendu maila urriko” laneko zentroko “42 plazei eusteko balio dau.

Sánchez Roblesek zentro okupazionalen “euskal eredu” defendidu dau, urritasun psikikoak daukiezan pertsona horreei enplegua eskintzeko “aukera hoberena” diralako. Aurton, Aldundiak “9.355.224 euro” jarriko ditu, “1.400 plaza baino gehiagori” eutsi ahal izateko.

Podemos Bizkaiak zalantzan jarri dau Ranzari aurreikusitako helburuak beteten ari danik, “2015. urteko Gerentziaren Txostenetik” ateratako ondorioak ikusita. Bertan adierazoten zanez “ez beteteak” egozan, “zaharkitutako makinakaz” egiten zalako behar eta zerbitzuak “kanpora ateraten” ziralako, Josean Elgezabal talde horretako batzordekideak adierazo dauenez. Zerbitzu okupazionalen kalidadeari jagokonez, Aldundiko arduradunak adierazo dauenez erakunde horrek “kunplidu egin dau”, txosten teknikoek erakusten dabenez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
13/03/2017

## **Las Juntas Generales de Bizkaia piden la comparecencia del Ararteko para dar cuenta de su informe sobre los servicios sociales**

Todos los grupos junteros han acordado hoy en la comisión de Acción Social solicitar la comparecencia del Ararteko, Manuel Lezertua, en las Juntas Generales de Bizkaia. La petición del grupo Podemos Bizkaia ha recibido el beneplácito de la Cámara vizcaína por unanimidad. Lezertua deberá decidir ahora si acude a una próxima comisión para detallar, en lo que concierne a Bizkaia, su informe "La situación de los servicios sociales municipales en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Situación actual y propuestas de mejora".

Los grupos junteros han coincidido en señalar que la presencia del Ararteko será "positiva" para conocer la realidad de estos servicios sociales en los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, algo que ya hizo en una comparecencia sustanciada en el Parlamento Vasco el pasado 8 de marzo. Como se indica en la petición, y de producirse la comparecencia, la intervención del defensor del pueblo vasco deberá circunscribirse a los servicios sociales municipales de Bizkaia.

El grupo Nacionalistas Vascos ha deseado que su comparecencia traiga una "reflexión nueva" sobre estos servicios. El jeltzale Jon Sánchez ha explicado "no tener problemas" a que acuda el Ararteko a las Juntas Generales, aunque su "espacio parlamentario" sea la Cámara Vasca en donde están representados las "mismas" formaciones políticas que en el Legislativo vizcaíno. Ha advertido que su grupo abrirá una "reflexión" de lo que salga de esta reunión teniendo en cuenta que estas comisiones "tienen un coste" para la institución foral.

### **"CONSENSO" SOBRE RESIDENCIAS MUNICIPALES**

Por otro lado, en la comisión celebrada hoy en las Juntas Generales, la diputada foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles ha señalado que durante "este primer trimestre" la Diputación espera alcanzar un "consenso" con esos ayuntamientos que gestionan las "15 residencias" de titularidad municipal existentes en Bizkaia para personas mayores, una vez que su departamento ha concluido "ya" la valoración de los dependientes de grado II y III. Como marca la normativa, la Diputación asumirá la atención de "todas" estas personas que podrán a partir de este año posibilidad de elegir centro asistencial, tratando de "mitigar situaciones transitorias" que se produzcan en el despliegue del nuevo mapa de servicios sociales.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Los grupos de la oposición – EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP- han criticado que la valoración haya concluido el mes pasado, cuando ésta debería de haberse realizado “antes”. Sánchez Robles ha respondido que fueron los propios ayuntamientos, a través de Eudel, los que solicitaron “más tiempo” para estudiar la situación, ya que para estos es un “reto importante” y la Diputación “quiere respetar la autonomía municipal”.

### TALLERES RANZARI

En otra comparecencia solicitada, como la anterior, por el grupo juntero Podemos Bizkaia, Sánchez Robles ha respondido a las preguntas de este grupo sobre la situación actual de los Talleres Ranzari. La formación morada se ha interesado por la aportación económica que realiza la Diputación y el cumplimiento de los objetivos marcados.

La diputada foral ha informado de que la consignación nominativa en los Presupuestos de 2017 alcanza los “562.000 euros” en virtud de un convenio firmado con la Mancomunidad municipal Pro minusválidos psíquicos talleres Ranzari, que está en manos de los ayuntamientos de Santurtzi y Portugalete. Esta cantidad, que “no llega al 11%” de sus ingresos operacionales, sirve para el mantenimiento de “60 plazas” en su centro ocupacional y “42” en su centro de empleo de “bajo rendimiento”.

Sánchez Robles ha defendido el “modelo vasco” de centros ocupacionales como “la mejor opción” para ofrecer oportunidades de empleo a estas personas con minusvalías psíquicas. Durante este año, la Diputación aportará “9.355.224 euros” para el mantenimiento de “más de 1.400 plazas”.

Podemos Bizkaia ha dudado de que Ranzari esté alcanzando los objetivos previstos en vista de las conclusiones de un “Informe de la Gerencia del año 2015” que ya sacaba a la luz “incumplimientos” en cuanto a que se trabaja con “maquinaria obsoleta” y se “externalizan” servicios, según su apoderado Josean Elgezabal. En lo que respecta a la calidad de los servicios ocupacionales, la responsable foral ha asegurado que dicha entidad “ha cumplido” en base a lo que dicen los informes técnicos.